

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa. Onestea egungo inflazio egoerari aurre egiteko zerga neurriak

Eguno inflazio egoerak ekonomian eragin negatiboa duenez, horri buruzko zerga neurriak onetsi beharra dago.

Horregatik, zerga premiazko araugintzako dekretu honen xedea da premiaz onestea zergadunengan inflazioaren ondorioak arintzeko zenbait zerga neurri.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, alde batetik, eguneratu egiten dira, ehuneko 4, baterako zerga ordainketagatiko murrizketa, kenkari pertsonalak eta familiarrak eta likidazio oinarri orokorrari dagozkion kuota murrizketa, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Gainera, likidazio oinarri orokorrari dagokion tarifa ehuneko 4 deflatatzen da.

Eguneratze horiek eta deflatazio hori gehitu behar zaizkio ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 23ko 34/2021 Foru Arauak egindakoei. Zehazki, foru arau horren bidez, ehuneko 1,5 eguneratu ziren baterako zerga ordainketagatiko murrizketa, kenkari pertsonal eta familiarrak eta likidazio oinarri orokorrari dagokion kuotaren murrizketa orokorra. Gainera, foru arau horrek likidazio oinarri orokorrari dagokion tarifa ehuneko 1,5 deflatatu zuen.

Bestalde, zerga premiazko araugintzako dekretu honek salbuetsi egiten ditu zergapekoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatu jakin batzuetatik.

Azkenik, eta 2022rako bakarrik, likidazio oinarri orokorrari dagokion kuotaren ezohiko murrizketa berri bat sortu da zerga oinarri orokorra 35.000 eurokoa edo txikiagoa duten zergadunentzat.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, 2022ko ekitaldiari dagokion ordainketa zatikatua egitetik salbuetsita geratzen dira betekizun jakin batzuk betetzen dituzten zergadun batzuk.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inpaktuaren txosten laburtua aztertu da.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkieten eskumenak baliatuz, presazko arrazoiak direla eta, hau

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira (ondorioak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte):

Bat. 73. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

##### “73. artikulua. Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa

1. Foru arau honetako 98. artikuluan xedatutakoaren arabera zerga batera ordaintzea hautatuz gero, zerga oinarri orokorretik urtean 4.590 euro kenduko dira autolikidazio bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatutako murrizketa 3.987 eurokoa izango da foru arau honen 98. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen autolikidazioetan.”

Bi. 75. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA, GEHIENEZ (EUROAK)	KUOTA OSOA (EUROAK)	LIKIDAZIO OINARRIAREN GAINERAKOA, GEHIENEZ (EUROAK)	TASA EHUNEKOA
0,00	0,00	16.940,00	23,00
16.940,00	3.896,20	16.940,00	28,00
33.880,00	8.639,40	16.940,00	35,00
50.820,00	14.568,40	21.750,00	40,00
72.570,00	23.268,40	27.940,00	45,00
100.510,00	35.841,40	33.470,00	46,00
133.980,00	51.237,60	61.340,00	47,00
195.320,00	80.067,40	Hortik gora	49,00

Hiru. 77. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. Zergadunek 1.513 euroko murrizketa egin dezakete autolikidazio bakoitzeko kuotan, foru arau honen 74. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

2. Foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gune edo eremuetan ohiko etxebizitza duten zergadunek, aurreko apartatuan aipatzen den murrizketaz gain, 104 euroko beste murrizketa bat aplikatuko dute kuotaren gainean autolikidazio bakoitzeko, despopulatzeko arriskuan dauden guneeetan edo eremuetan bizitzeagatik.”

Lau. 79. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplika daiteke:

- 638 euro urtean lehenengoagatik.
- 790 euro urtean bigarrenagatik.
- 1.332 euro urtean hirugarrenagatik.
- 1.574 euro urtean laugarrenagatik.
- 2.056 euro urtean bosgarrenarengatik edo hurrengo bakoitzagatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko, aurreko apartatuaren araberako kenkaria aplikatzeaz gainera, beste 368 euro kendu daitezke urtean.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik (adin hori barne) hamasei urtera bitarteko ondorengo bakoitzeko, aurreko apartatuaren araberako kenkaria aplikatzeaz gainera, beste 58 euro kendu daitezke urtean. Kenkari hau ezin da bateratu aurreko paragrafoan ezarritakoarekin.”

Bost. 81. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

“1. Zergadunek 306 euroko kenkaria aplika dezakete urte natural osoan etengabe eta jarraian beraiekin bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik.”

Sei. 81 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Zergadunak zerga sortzen den egunean 39/2014 Foru Dekretuan (abuztuaren 1ekoa, Araban autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak arautzen dituen) arautzen den laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren titularrak badira eta araudi horretan eta hura garatzen duten arauetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute laguntzaile pertsonalak kontratatzen dituztenean. Kenkaria honako hau izango da, mendekotasun egoeraren edo desgaitasunaren arabera eta hirugarren baten laguntzaren behararen arabera:

MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA	KENKARIA (EUROAK)
Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa Mendekotasun moderatua (I. gradua)	312
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun larria (II. gradua)	520
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 40 puntu edo gehiago besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun handia (III. gradua)	1.040

Zazpi. 82. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Mendeko pertsona edo desgaitua den zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta haren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua zein den eta desgaituak hirugarren baten laguntza behar ote duen (gradu hori eta hirugarren baten laguntza behar izatea erregelamendu bidez ezarriko dira). Hona hemen kenkari horri dagokion taula:

MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA	KENKARIA (EUROAK)
Ehuneko 33 - 65 bitarteko desgaitasuna	849
Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendekotasun moderatua (I. gradua)	1.212
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun larria (II. gradua)	1.453
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 40 puntu edo gehiago besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun handia (III. gradua)	1.813

Zortzi. 83. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 367 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 668 eurokoa izango da.

Apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunaren zerga oinarria ez izatea 20.000 eurotik gorakoa.

2. 20.000-30.000 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita bost urtetik gorako zergadunek 367 euroko kenkaria aplikatuko dute, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga oinarritik 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0367z biderkatu.

3. 20.000-30.000 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita hamabost urtetik gorako zergadunek 668 euroko kenkaria aplikatuko dute, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga oinarritik 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0668z biderkatu.”

## **2. artikulua. Kuotaren ezohiko murrizketa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbait zergadunentzat, prezioen igoeraren ondorioak arintzeko**

Indarraldia 2022ko zergaldirako baino izango ez duelarik, aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 77. artikulua titulu, eta 3. apartatua gehitzen zaio 77. artikulua horri. Honela geratzen da idatzita:

**“77. artikulua. Kuotaren murrizketa orokorra, murrizketa despopulatzeko arriskuan dauden gune edo eremuetan bizitzeagatik eta ezohiko murrizketa.”**

“3. Zerga oinarri orokorra 30.000 eurokoa edo hortik beherakoa duten zergadunek, 2022ko zergaldiari dagokion autolikidazioan, artikulua honen aurreko apartatuen arabera aplikatzekoak zaizkien murrizketez gain, 200 euroko beste kuota murrizketa bat aplikatuko dute autolikidazio bakoitzeko.

Zerga oinarri orokorra 30.000 eurotik gorakoa eta 35.000 eurotik beherakoa duten zergadunen kasuan, aurreko paragrafoan aipatutako kuota murrizketa 200 eurokoa izango da autoliki-dazio bakoitzeko, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga oinarri orokorretik 30.000 euro kendu eta emaitza 0,04z biderkatu.”

### **3. artikulua. Pertsona fisikoei emandako laguntza publiko jakin batzuk salbuestea**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira honako xedapen hauen esparruan emandako laguntzak:

a) 200 euroko laguntza, ordainketa bakarrekota, Ukrainako gerrak dituen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uharteko suspertze ekonomiko eta sozialerako hainbat neurri hartzen eta luzatzen dituen ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoaren babespean emandakoa.

b) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburuaren 2022ko uztailaren 14ko Aginduaz baliatuz emandako laguntzak; agindu horren bidez, onetsi ziren talde kalteberentzako bonu digitalak jaulkitzeko programaren oinarri arautzaileak eta deialdia, Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (ÚNICO Gizarte Bonua programa).

### **4. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuak egitetik salbuestea**

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, baldin eta jarduera ekonomikoak gauzatzen badituzte, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean honako hauei dagozkien ordainketa zatikatuak egitera edo, hala badagokio, autolikidatu eta ordaintzera: 2022ko hirugarren eta laugarren hiru hilekoak.

2. Ordainketa zatikatua sei hilean behingoa bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, baldin eta jarduera ekonomikoak gauzatzen badituzte, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean honako honi dagozkion ordainketa zatikatuak egitera edo, hala badagokio, autolikidatu eta ordaintzera: 2022ko bigarren sei hilekoa.

3. Ordainketa zatikatu horren autolikidazioa borondatez aurkezten bada, ezin izango da eskatu dagokion zenbatekoaren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, eta ez da eskubiderik izango bidegabeko diru sarrera itzultzea kontzeptua dela-eta zenbateko hori itzul dadin eskatzeko.

### **5. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aukerako autolikidazioa**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 102. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoaren bigarren marran jasotako aukerako autolikidazioa, 2022ko zergaldiari dagokiona, kalkulatzeko, marra horren a') letran aipatutako atxikipenaren ehunekoen taulak 2022ko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, edozelan ere.

### **6. artikulua. 2022ko sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua**

2022an, ez dira behartuta egongo ordainketa zatikatua egitera, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 130.bis artikulua 1. apartatuan adierazitako zergadunetz gain, betekizun hauek betetzen dituzten zergadunak:

a) Azken zergaldiari dagokion eragiketa bolumena 50 milioi eurotik beherakoa izatea, baldin eta aitortpena egiteko epea 2022ko urriaren 1ean amaituta badago.

Sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkeztu ez bada, horretara behartuta egonik, aurkeztutako azken aitortpenari edo, hala badagokio, egindako azken likidazioari dagokion zergaldiko eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

Lehen adierazitakoarekin bat etorritz aitorpena egiteko epea amaituta duen azken zergaldia urtebetetik beherakoa bada, eragiketen bolumena urtebetera igoko da, 12 hilabeteko aldi bat osatu arte.

b) Zergak ez ordaintzea aipatutako foru arauaren VI. tituluaren VI. kapituluari jasotako zerga baterakuntzaren araubide berezian.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

1. Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

2. Baimena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari foru agindu bidez luzatzeko zerga premiazko araugintzako dekretu honetan jasotako zerga neurrien indarraldia, betiere justifikatuta badago haiek onestea eragin zuten aparteko inguruabarrak mantentzen direlako.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**